

Gaixoa, medikuekin eskuz esku

Gaixo dagoen pertsona sendatuko bada, hark ere inplikatu egin behar du eta erabaki terapeutikoetan parte hartu



GAIXO DAGOENAK MEDIKUEN esku jartzen ditu konfiantza eta itxaropena, baina ez du zertan beti zain egon, dena besteek egin behar dutelakoan. Berak ere ekin dezake, eta hala egitea komeni da, gainera: tratu pertsonalizatua eska dezake, osasun langileek beste modu bateko arreta eskain diezaiotela, informazio egoki eta argia eman diezaiotela, eta bere osasunari buruz hartuko dituzten erabakietan parte hartzen utz diezaiotela. Hobekuntza jarraitua, kalitatea, bikaintasuna... kontzeptu horiek aski finkatuak daude gizarteko beste arlo batzuetan, eta osasun erakundeek ere horiek hartu dituzte eredutzat beren kudeaketa sistemetan txertatzeko.

Rol berriak

Orain berriro arte, nahiko paternalista izan da medikuaren eta gaixoaren arteko harremana. Eredutradizionalak horixe agintzen zuen: medikuak entzungo zituen gaixoaren esanak, diagnostikoa egin eta zer tratamendu eman erabakiko zuen. Hark bazekien zer komeni zitzaion gaixoari, eta gaixoak obeditu egingo zuen. Zertarako galdetuko zuen zein alternatiba terapeutiko zeuden gaixotasun harentzat, zein abantaila zituen aukera batek eta zein desabantaila besteak... Medikuek jakingo zuen, baldinbaite-

re! Harreman mota horretan, gaixoa egoteko zegoen; zeresan gutxi zuen, eta nekez ausartuko zen medikuari aurka egitera.

Azken hamarkadetan, ostera, hainbat arrazoik eraginda, aldatu egin da medikuaren eta gaixoaren arteko harremana. Batetik, bilakaera handia izan da gizarte harremanetan; bestetik, eskubide indibidualek indar hartu dute; eta, azkenik, informazioa eskuratze bideak asko erraztu dira. Gaixoak gero eta ardura gehiago hartu du, eta orain badu zeresana bere osasuna eta tratamenduari buruz.

Gaixoak neurri horretan parte hartu ahal izateko, ordea, baldintza batzuk bete beharra dago. Hasteko, informazio ona jaso duela bermatu behar da. 41/2002 Legeak, Gaixoaren Autonomiari buruzkoak, halaxe dio 4.3 artikuluan: "Gaixoaren ardura duen medikuak bermatuko dio errespetatuko dutela haren informazio eskubidea, eta hura zaintzen ariko diren profesionalak edo teknika edo prozedura jakin bat ezarriko dioteneke ere informazioa eman beharko diote". Gaixo bat sendatzeko prozesuan, izan ere, osasun langile askok parte hartzen dute, ez medikuak bakarrik. Hor daude, besteak beste, erizainak, fisioterapeutak, gizarte laguntzaile edo langileak. Arlo bateko baino gehiagoko profesionalak parte hartzen dute-

nean, ospitaleak berak har dezake informazio guztia emateko ardura, baldin eta argi eta garbi zehaztuta badaude zer arrisku eta nolakoak izango dituen ebakuntza edo ekintza bakoitzak.

Osasun Lege Orokorra ere ildo beretik jotzen du, eta esaten du medikua behartuta dagoela gaixoari informazioa ematera. 41/2002 Legeak, berriz, mediku arduradunaren figura sortu, eta hauxe esaten du: "Mediku arduradunak, gaixoaren onespenean idatzia eskuratu aurretik, informazioa eman beharko dio, eta, gainera, informazio osatua jasotzeko eskubidea bermatu beharko dio".

Beraz, egungo lege esparruak babes handia ematen dio gaixoari. Horren erakusgarri, besteak beste, 1978ko Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua; Osasun Lege Orokorra, 1986koa; Gaixoaren Autonomia, eta Informazio eta Dokumentazio Klinikoko gaiei buruzko Eskubide eta Betebeharrak Erregulatzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Oinarrizko Legea; eta autonomia erkidego bakoitzak onartu dituen legeak. Hala ere, ez dirudi herritarrek lehen baino barneratuago dutenik alderdi hori. Eta ez badakite zein eskubide eta betebeharrak dauzkaten gaixo moduan, ezin izango dute esku hartu erabakiak hartzeko orduan.

Informazioak gauza asko aldatu ditu

Orainsu arte, medikuntza arloko profesionalen esku egon da osasun gaiekin zerikusia zuen informazio guztia. Orain, ordea, informazio hori komunikabide guztietan eta Interneten agertzen da. Alde guztietan badira berriak eta aipamenak -ez erabat fidagarriak beti-, eta jende guztiaren gana iristen dira. Interneten egiten diren bilaketa guztien % 19,6, adibidez, osasun gaiei buruzkoak dira Espainian, eta hori bada zerbaiten seinale. Gainera, gero eta maizago, Sarean irakurri dituzten kontuei buruz galdetzerako joaten zaizkie gaixoak medikuei. Bistan da gauzak aldatu direla, eta osasun arloko profesionalak, gaixoak sendatzen saiatzeaz gain, gidari eta aholkatzaile lanak ere egin behar izaten dituzte: jakin (eta esan) Interneten zein gune eta zein informazio merezi duten eta zeinek ez. Horri guztiari erantzuteko, kontsulta denborak egokitzea beste aukerarik ez dago, baina nola, egunak 24 ordu izaten jarraitzen badu?

Denbora da eragozpenik handiena "erabakiak elkarrekin har tzea" proposatzen duen eredu honek arrakasta eduki dezan. Hori horrela delako, gehien-gehienetan, idatziz ematen zaio informazioa gaixoari, eta hark

dokumentu bat sinatuz ematen du onespenean, non esaten baitu informazioa eman diotela eta ados dagoela. Zenbait ikerketak esaten dute, ordea, dokumentu horien edukia eskasa dela. Beraz, nahiz eta lege bidez saiatu gaixoaren autonomia indartzen eta informazioa jasotzeko eskubidea sustatzen, oraindik aski urrun gaude helburutik, baita gutxienekoetatik ere.

Inplikazio gehiago

Herritar bakoitzak bere osasunari dagozkion erabakietan esku hartzea gauza bat da, baina urrunago ikusten da osasun politikei eta osasun zerbitzuei buruzko erabaki handietan ere parte hartu ahal izatea. Gai horretan aditu direnek, zenbat elkartek eta nazioarteko erakunde batzuek hainbat gomendio eman dituzte herritarrek eta gaixoei modua eduki dezaten osasun sistemen inguruko erabakietan parte hartzeko. Halaxe egin dute, besteak beste, Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundeak (OCDE), Osasunerako Munduko Erakundeak (OME) eta Europako Batzordeak. Egoera berriek jarduteko modu berriak eskatzen dituzte, eta osasun sistemek ere egokitu beharra daukate horretara. Zer hobea gaixoen osasuna hobetzeko, erabakitzekeo prozesuetan herritarren ikuspuntua aintzat hartzea baino. //

